



KULTUR ANIZTASUNAREN ATALAREN JARDUEREN MEMORIA 2014

11352n II



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Kultur Aniztasunaren Bulegoa
Negociado de Diversidad Cultural



AURKIBIDEA

1. Kultur Aniztasunaren Atala

1.1. Teknikari berriak Kultur Aniztasunaren Atalean

2. Harrera Protokoloa

2.1. 1.FASEA: Donostia Hiriko Harrera Mapa eta ezaugarriak, 2014

2.2. 2. FASEA: Harrera Protokolo Proposamenaren Kontrastea

2.3. Alkatearen Ongietorri Saioa

3. Sentsibilizazioa eta Kontzientziazioa

3.1. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna

3.2. Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna

3.3. Dialogorako eta Garapenerako Aniztasun Kulturalaren Nazioarteko Eguna

3.4. Ijito Herriaren Eguna Euskal Herrian

3.5. Haurtzaroaren Nazioarteko Eguna

4. Herritarren parte hartzea

4.1. Udaleko Hauteskundeetan Etorkinek parte hartzeko kanpaina

5. Ahalduntzea

5.1. Emakume immigranteen topagune kultur aniztuna

6. Sareetan parte hartzea

6.1. Kultur Aniztasuneko Eragileen Sarea

6.2. Udalanitz Sarea

6.3. Hiri Kulturalanitz Sarea

6.4. ICC- Intercultural Cities

7. Diru-laguntzak

7.1. Irabazi xederik ez duten entitateentzako diru laguntzak

1. Kultur Aniztasunaren Atala

1.1. Teknikari berriak Kultur Aniztasunaren Atalean

Kultur Aniztasunaren atalean, giza baliabideei dagokienez, bi Kultur Aniztasunerako teknikari daude lanean hau sortu zenetik. 2014ko Irailean Kultur Aniztasunaren Bulegoan Hezkuntzan zeuden bi langile berri hasi dira lanean, atalean dagoen lan karga ikusita.



2. Harrera Protokoloa

Hau gauzatzeko, urrats ezberdinak egin dira, hauen artean Harrera Protokoloaren diseinua eta martxan jartzea garatu du atalak. "Jatorri Anitz eta Elkarbizitza Donostian" Diagnostika egin zen 2013. urtean, herritarrekin prozesu parte hartzaile bat egin zen eta hauen ekarpenak jaso ziren. Ekarpenei haurtatik hainbat ondorio ateratu ziren eta horietako bat harrera lantzearen garrantzia izan zen.

2.1. 1. FASEA: Donostia Hiriko Harrera Mapa Eta Ezaugarriak, 2014

2014ko maiatza eta ekaina artean

HARRERAREN DIAGNOSIA

Lehenengo fasearen hasieran Harrera Diagnostika burutu zen, honen helburu nagusia gaur egun Donostian egiten den harrera ezagutzea zen. Horretarako, 3 eremuren arabera eragileak identifikatu ziren: instituzionala, herrikoa eta hezkuntza eremua. Diagnostika hau eragileek eta udal teknikariek betetako harreraren inguruko galdetegi baten erantzunekin osatu zen. Udal administrazioan 18 galdetegi pasa ziren. Gizarte eragileen artean 94 zabaldu ziren arren, 12k soilik erantzun zuten.

"Harrera Mapa eta Ezaugarriak" izeneko txostena burutu zuen Aztiker enpresak, erantzundako galdetegi guztietatik ateratako ondorioekin.

HARRERA PROTOKOLOAREN PROPOSAMENA

Lehenengo fasearekin amaitzeko, Aztikerrek Harrera Protokolo proposamena egin zuen diagnosi horretan parte hartu zuten eragileek egindako ekarpenak kontutan izanik.

2.2. 2.FASEA: Harrera Protokolo Proposamenaren Kontrastea

2014ko Azaroa

ZABALPENA ETA LAN BILERAK

Fase honetan, protokolo proposamenaren zabalpena egin da. Horretarako Donostiako bost auzo aukeratu ziren (Altza, Intxaurrondo, Amara, Alde Zaharra eta Antiguo). Hiri mailako 20 elkarte aukeratu ziren eta auzo hauetatik beste 20 eragile. Hauekin izandako elkarriketen ondorioz harrera diagnostikoa osatu, harrera protokoloaren proposamena aurkeztu da eta eragileak saio presentzialetara gonbidatu ziren, bien bitartean protokoloaren inguruko hausnarketa egin zezaten eskatuz.

2014ko Azaroa


SAIO PRESENTZIALAK

2 saio presentzial egin ziren. Alde batetik eragileekin eta bestetik udal teknikariek. Hauen helburua, edukien inguruko kontrastea egitea izan zen. Horretarako beharrezko aldaketa edo moldaketa proposamenak jaso eta harrera protokoloa zehaztu zen. Hauetan, harreraren inguruko hausnarketa egin zen eta Harrera protokoloaren fluxogramaren inguruko ekarpenak jaso ziren.

Teknikarien saioan parte hartu zuten Udaleko atalak hauek dira:

- Udalinfo
- Euskara
- Gazteria eta aterpetxeak
- Berdintasuna
- Kultura
- Hezkuntza
- Kirola
- Giza Eskubideak
- Sustapena
- Gizarte Ongizatea
- Udaltzaingoa

Eragileen saioan 21 pertsona egon ziren.



2.3. 3. FASEA: Harrera Protokoloaren moldaketa eta martxan jartzea

Alkatearen Ongietorri Saioa

2014ko Abenduaren 4a

Hiru hiletik behin, Alkateak berak edota gobernuko beste kide batek, Udaletxeko Pleno Aretoan, bereziki antolatutako saioan, harrera egingo die iritsi berriei. Hauek erroldatzerako orduan Ongietorri saio honetan parte hartzeko gonbidapena jasoko dute.

Saio honetan ongi etorria egingo zaie Donostiara bizitzera etorritako hiritar berriei eta Donostiaren aurkezpen bat egingo zaie bideo baten bidez. Bestalde, Donostiako eragile desberdinek euren elkarteak aurkezteko aukera izango dute.

Lehen saioa 2014ko abenduaren 4an burutu zen eta parte hartze maila altua izan zen, bai Donostiara etorri berri diren pertsonen aldetik, baita gizarte eragile eta udaleko ordezkarien aldetik ere.



3. Sentsibilizazioa eta Kontzientziazioa

Hainbat kanpaina burutu dira urtean zehar data zehatz batzuk oinarri hartuta.

3.1. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna

“Donostia kulturen arteko hiria” izendatzen duen adierazpena onartu zuten talde politiko guztiek eta honen irakurketa egin zen Udaletxeko terrazan. Jatorri anitzeko hainbat pertsona hurbildu ziren irakurketa honetara.



11352n II

Honekin batera, 2014ko martxoaren 21ean, kanpaina berezi bat egin zen, pegatinak eta txapak kaleratuz Donostiako biztanleriaren artean, kultur aniztasunaren onurak eta aberastasuna azpimarratzeko. Hauek hainbat taberna, ikastetxe, zentro, erakunde eta saltokitara bidali ziren hiritarren konpromisoa eskatuz.




3.2. Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna

Apirilaren 8an, beste urte batez, ijito elkarteekin batera ospatu zen egun hau. Goizean ijito bandera zintzilikatu zen Udaletxeko balkoian eta 17:30ean harrera egin zitzaien ijito ordezkari eta herritarrei Udalbatza Aretoan. Komunikatua irakurri eta gero, makilak trukatu zituzten Alkateak eta Tío Manolok, ijitoen ordezkariak. Ospakizun honetan parte hartu zuten Camelamos Adiquerar, Afigufi, Romi Bidean, fundación Secretariado Gitano eta Kale Dor Kayiko elkarteetako kideek. Bertatik, Alderdi Ederreko terrazara hurbildu eta ijito bandera irudikatzen zuen mosaiko bat osatu zuten ijitoek.



Bukatzeko, **Ibaia**ren zeremonia ospatu zen Nautikoan. Zeremonia hau oso garrantzitsua da ijito herriarentzat, arbasoen omenez egiten arrosa petaloak itsasora isuriz urteetan jasandako hilketak gogoratzeko egiten baita.



Ijitoen bandera ere ikusi zen Dbuseko autobusetan egun guztian zehar.

Bestetik, Donostiako eskolak gonbidatuak izan ziren ekitaldietara. Horrez gain, **ikasleekin ijitoen bandera koloreztatzea** proposatu zitzaien eta banderaren esanahia ezagutzeko eta ijito herriaren errealitateari buruzko hausnarketa egiteko aukera eman zitzaien. Horretarako bandera koloreduna eta txuri beltzean zuen kartela bidali zen ikastetxe guztietara.

Bukatzeko, Giza Eskubideen Zinemaldiak keinu bat egin zion aurten ere ijito herriari: apirilaren 11n "Piratas y Libélulas" **ijitoen inguruko pelikula** eskaini zen, ijito ordezkariak parte hartu zutelarik bukaeran izandako solasaldian.

3.3. Elkarrizketarako eta Garapenerako Aniztasun Kulturalaren

Nazioarteko Eguna

2014ko Maiatzaren 21a

Donostiako Udalak, EH11Kolorek eta etxe erregionalek bat egin zuten maiatzaren 30 eko asteburuan hainbat ekintza antolatuz. Ostiral arratsaldean, Easo Plazan kulturen arteko topaketa ospatu zen, Donostiako Udalak eta hiriko aniztasun elkarteek elkarlanaren ondorioz, haur tailer, Grafiti tailerrak, kapoeira tailer bat, dantza, musika, erakusketak eta elkarteek eta jatorriko herrialdeen informazioa izan zirelarik. Kaebnai, Haurralde, Afikeuskadi, Bidez Bide, Uníon de Nicaragüenses de Euskadi, Esperanza Latina, Auzoko herritarrak eta eskoletako haurrek giro atsegina sortu zuten.

Topaketa hauetan hartutako irudiekin bideo bat egin zen eta hau da Alkatearen Ongietorri Saioetan erabiltzen dena.




11352n II

3.4. Ijito Herriaren Eguna Euskal Herrian

Gure artean 500 urte baino gehiago eraman arren, oraindik ere, herri honi buruz dakiguna bizitzako atal txiki bat besterik ez da. Programa honen bitartez, bere historia ezagutzera ematen duten pasarteak ezagutu genituen eta egungo egoera ulertzeko zenbait urrats eman, herri honen historia eta kultura oso aberatsa baita.

Egun hau ospatzeko, programa orokorra egin zen 2013ko azaroan, herri honen historia eta kultura herritarrei hurbiltzeko asmoz.

Azaroaren 16an Ijito Herriaren Eguna Euskal Herrian ospatzeko AFIGUFI Ijito Elkartarekin lanean aritu ginene sentsibilizazio eta normalizazio lanetan. Hiriko zenbait gaztelekutan "Gazte Latchó Tailerra" izeneko jarduera egin zen, 13-17 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Alde batetik, "Miguel eta Nekane" komikiaren 2. alearen bitartez, protagonistek, ijito batek eta paio batek, ezagutzera eman zuten ijito herriaren historia Euskal Herrian. Dinamika parte hartzailea izan zen, gazteei komikiaren irakurketan parte hartzea eta ijito herriaren inguruan hausnartzea gonbidatuz. Honen ondoren "txalo flamenkoak" jotzen ikasteko tailer bat egin zen. Jarduera azaroaren 11, 12 eta 14an, Aiete, Martutene eta Intxaurrondoko Gazteleketan egin zen. Honekin batera, tailer berdinen bertsio ireki bat eskaini zen, herritar guztiei zuzendua azaroaren 24an, Donostiako Udaleko Udalbaltza Aretoan.



3.5. Haurtzaroaren Nazioarteko Eguna

2014ko Azaroaren 20a

Haurren Mundu eguna dela eta, Donostiako Udalak, Kultur Aniztasunaren eta Giza Eskubideen sustapenarekin batera, balioen hezkuntza, aniztasunaren errespetua eta haurren eskubideak bultzatu nahian, Dar-Dar produkzioak prestatutako "Eta Zer? II" antzerki emanaldia antolatu genuen azaroaren 20an Donostiako Antzoki Zaharrean.

"Eta zer?II Antzerkia elkar argialetxearen bilduman oinarritua dago. Guztiok desberdin izateko eskubidean dago ikuskizunaren mamia eta beste gai batzuen artean bullying-aren gaia ukitzen du.

Antzerki emanaldia 8 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Emanaldia eta gero, antzezleek eskolak bisitatu zituzten, eta bertan ikasleen galderei erantzun zieten. Material didaktikoa eta mural bat zabaltu zen ekintza honetan parte hartu zuten ikastetxeetan; hortaz, neska-mutilen parte-hartze aktiboa ziurtatu da. Datorren martxoan jaso ahal izango ditugu ikastetxeetan haurrek egin dituzten muralak.

Ekintza honetan parte hartu zuten ikastetxeak, bederatzi izan ziren eta bakoitzean bi emanaldi antolatu ziren, bat goizeko 9:00etan eta bestea goizeko 11:00etan. Guztira 770 ikasleek parte hartu zuten.



Antolatzaileak:



Babesleak: donostiakultura.com



3.5. Haurtzaroaren Nazioarteko Eguna

2014ko Azaroaren 20a

Batetik, Udal liburutegietan, "Ipuinaren ordua" izeneko saioa eskaini zen, 2-4 urte bitartekoentzat, haurren eskubideak ardatz hartuta. Saio guztiak euskaraz izan ziren hiriko liburutegi desberdinetan: Liburutegi Nagusiko Haur Sailean, Intxaurrondo Berrin eta Ernest Lluch.

Bestalde Gaztelekuetan, UNICEFen "Nik hitzarmena eskatzen dut" jardueraz gozatu zuten. Joko honen bitartez, gazteek hausnartu eta eztabaidatu zituzten zeintzuk diren oinarrizko beharrak, eta nola hauek oinarrizko eskubidetzat har daitezkeen. Azaroaren 20an, Martutenen, Aieten, Bidebieten, Egian, Grosen eta Intxaurrondoko gaztelekuetan burutu zen, azaroaren 19an, Amarako gaztelekuan eta azaroaren 22an, Antiguako gaztelekuan.

Horrez gain, hiriko Haurtxoko guztietan, era guztietako dinamika eta jolasek osatutako egitarauak antolatu ziren. Azaroaren 18tik 22ra, bertaraten diren haur guztiek haurren eskubideen inguruan sentsibilizatzeko eta hauek ikusgarri egiteko ekintza dibertigarri eta ludikoetan aritu ziren.



4. Herritarren parte hartzea

Udaleko Hauteskundeetan Donostiako etorkinek boto eskubidea erabil zezaten kanpaina bat egin zen Abenduaren 22tik 28ra.

Kanpaina honetan hiritarrei azaldu zitzairen zein urrats eman behar dituzten beraien boto eskubidea erabiltzeko bai europar erkidegoko herritarra izanik, baita erkidegotik kanpoko herritarra izanik ere.



•Udaleko hauteskundeetan bozkatzeko eskubidea erabil ezazu.


•En las próximas elecciones municipales ejerce tu derecho al voto.

5. Ahalduntzea

5.1. Emakumeen Gune Interkulturala

Berdintasunaren eta Kultur Aniztasunaren atalek bultzatutako ekimen hori, 2010eko martxoaz geroztik egiten da, Emakumeen Etxean. Dinamizazioaz Garaipen kolektiboa arduratzen da.

2014an hainbat herrialdetako 43 emakumek hartu zuten parte gune honetan. Hala ere, parte hartzea ez da egonkorra izan urte guztian zehar, izan ere, batzuk etorri eta beste batzuk taldea utzi dute arrazoi ezberdinengatik: jatorrizko herrialdera itzuli beharra izan dutelako, formakuntza batean izena eman dutelako, enplegua aurkitu dutelako eta abar.



6. Sareetan parte hartzea

6.1. Kultur Aniztasuneko Eragileen Sarea

2013an burututako diagnostikoaren ondorioen artean, Kultur aniztasuna lantzen duten eragileen arteko sare bat sortzearen beharra nabarmendu zen eta ideia horri jarraituz, Kultur Aniztasunerako Bulegoak Donostiako eragile ezberdinekin batera sare horren sormena landu zuen. Sare horren helburuak elkarleen arteko ezagutza eta elkarlana sustatzea, eragileen arteko koordinazioa eta instituzioarekin harremana sendotzea izango dira beste batzuen artean.

6.2. Udalanitz Sarea

Udalanitz sarearen sorkuntzatik Donostiako udalak parte hartu du sare horretan. 2014an, Diagnosi bat egin zute sarearen funtzionamendua, ibilbidea eta etorkizuna aztertzeko. Diagnosi horretan, Donostiako Kultur Aniztasun Bulegoak parte hartu zuen galdetegi baten bitartez.

Diagnosia egin eta gero, udaleko teknikariek bilerak egiten hasi ziren eta gure atalak guzti hauetan parte hartu zuen.

Horretaz gain, antolatutako formakuntza saio guztietan ere parte hartu zuen atalak.



6.3. Hiri Kulturaren Sarea

2011ko urtarrean sortutako Intercultural Cities (CoE-CE) proiektuaren ekimena da. RECI-k hainbat helburu ditu: **kultura arteko programak dituzten Espainiako hainbat hiri elkarrekin harremanetan jartzea**, esperientziak trukatzeko eta diseinatzeko eta jarduteko estrategiak eztabaidatzea; **aniztasunaren kultura sustatzea, proiektuan parte hartzen duten hirietan**, arduradun politikoen eta gizarte zibileko eragileen arteko elkarrekintza bultzatuz, eta hiri horien artean **esperientziak elkartrukatzeko**, kultura arteko politikak eta ekintzak gehiago garatzeko.

Donostiako udala sareko kidea da fundatu zenez geroztik. Gainerako hiriak hauek dira: Bartzelona, Bilbo, Cartagena, Fuenlabrada, Getxo, Xerez, Parla, Sabadell eta Tenerifeko Kabildoa.

2014ko Irailean, Bilbon egin den RECI-ren VII. Topaketan parte hartu genuen. Batzar horretan, hiriek aniztasunaren kudeaketarekin zerikusia duten aurre egin beharreko erronka nagusiei buruz eta kulturartekeko estrategiak eta politikak gauzatzeko orduan, toki-agintaritzei laguntzeko Kulturartekeko Hirien Sareak izan behar duen rolari buruz eztabaidatzeko aukera izan genuen.



11352n II

6.4. ICC- Intercultural Cities

Kulturarteko hirien sareak adituen laguntza eskaintzen du eta, halaber, aniztasuna hobeto kudeatzen ikastea eta aniztasunaren abantailaz baliatzea erabaki duten beste hirien babesa ere eskaintzen du. Nazioartean baieztatu eta egiaztatutako metodologia eta tresna analitikoak eta ikaskuntzakoak ere eskaintzen ditu. Hiriko politikak eta zerbitzuak berregituratzeko laguntza ematen du, testuinguru anitzean eraginkorrakoak izan daitezen eta hiritarren artean aniztasuna abantaila lehiakorra dela ezagutzera emateko balio dezaten.

ICC sarea Europako Kontseiluak eta Europako Batzordeak elkarrekin sortutako proiektua da. Proiektuaren helburu nagusia pertsona immigranteen eta gutxiengoen integrazioari buruzko **ideia praktikoa berriak bultzatzea da. Hirien arteko ezagutza eta elkartrukatzea** bideratu nahi ditu. Sarea **hirien ikaskuntzarako komunitatea** da. Sarean **politikari profesionalak, akademikoak eta gizarteko kideak** parte hartzen dute, aniztasunaren erronkari erantzun baikorra emateko.

ICC 20 hiritik gora eta 4 sare nazionalek osatzen dute.

2014an, "Deportes, Arte y Cultura en la Ciudad Intercultural" izeneko topaketak ospatu ziren Limerick-en. Limerick-en aurrera eramandako esperientziak aztertu ziren, baita Europar Kontseiluko Sarean parte hartzen duten beste hiri batzuenak ere. Hauen artean, ondorengoak aipatu daitezke: Alemania, Malta, Noruega, Portugal, Israel, Frantzia, Quebec, Irlanda, Chipre, Italia, Lituania, USA...





7. Diru-laguntzak

7.1. Irabazi xederik ez duten entitateentzako diru laguntzak

2014ko Diru laguntzak printzipio hauek izan zituzten:

- Jatorri eta kultur aniztasuna bultzatzea, elkarriketarako, bizikidetzarako eta desberdintasun eskubidea eta errespetua gauzatzeko.
- Jatorri eta kultur aniztasunaren ezagutza eta aitortza sustatzea.
- Aukera berdintasuna bermatzea.
- Parte hartzerako guneak eta jabekuntzarako dinamikak sortzea, beste herrialde batzuetako nahiz Donostiako pertsonen eta kolektiboen elkar ezagutza eta aitortza ahalbidetzeko.
- Euskara sustatzea berdintasunerako, kohesiorako eta gizartearen uztartzeko elementu komun gisa.
- Entitateen edota beste motatako gizarte eragileen arteko elkarlana eta esperientzia-trukea aintzat hartzea.

Kultur aniztasunaren aldeko proiektuak eta ekintzak diruz laguntzeko kopurua 22.500 eurokoa izan zen. Diru-kopuru hori 19 elkarteren artean banatu zen, lortutako puntuen arabera.